

## IV. JAUTARKOL OLERKI SARIA

LEHENENGO SARIA: Miren Salaberria Eguzkiza  
PASAI DONIBANE



### DENBORAZ

Maitale batek  
poema bat zizelkatuko balu biziminaren harlauzan  
iraunen luke  
nahiz eta desioaren mareetan  
ahazturaren olatuek mehatxatu  
iraunen luke  
pasioaren laburrean  
desenkantuaren luzean  
amodioa eta desamorioaren besoetan kulunkan  
iraunen luke  
hitzen magia soilik bilaka baiteke sentipen bat  
eternal  
gogoan hartu  
    Denbora  
joan badoan trenan da eternitatearen burdinbidean  
zikinduz kedarrez lurrazalean gaindi  
hedatzen den etengabeko utopia urdina  
    gaur  
laino beltzaxka batek  
(beste bat gehiago espazio mugagabea)  
kondenatu du bere burua teilatu odolduetara  
ezin izan baitu tatuatu amodio galduaren iniziala  
zeruaren ezpainetan  
(ez da oroitzapenen zauri odoldua baino  
esnatu berria den minduaren ohantzean aharrausika)  
izan ere, iraganik ez, oroitzapenik ez

atzokeriaren eldarnioak zuen xerkatzen ihesbidea  
antsia urdin iruzurtian  
eta geratu zen aidean izen bat, amodio galdu bat  
izan zitekeen Amelia, Laura... nahasirik haizearen  
zurrunbilan  
isiltasunaren pentagrametan geratzen den moduan  
melodia bat  
edo poema bat  
xuxurlatzen gaurik gabeko egunean iluntasunari bere  
ahaiera  
(ez ahaztu, kantu anitz entzun daiteke entzumenik  
gabe ere)  
    eta iragana oraina etorkizuna  
        pasatua presentea futuroa  
matematikoki neurtutako espazioaren izendatze hutsak  
geratu ziren eternitatearen memoriatan hautsak biltzen  
apenas baitago zero lurretan  
kebidetik ihes zegiten iragan puska belztuen lorratzik  
irentsi zituen nehoiz urdintasun minberak  
    Denbora  
joan badoan trenan baita eternitatearen burdinbidean  
zikinduz kedarrez lurrazalean gaindi  
hedatzen den etengabeko utopia urdina  
linealtasunaren itsumenak jota denboraren zirkuluan  
biraka.



## AUTOMATISMOAREN XEDERA

Maitale batek  
poema bat zizelkatuko balu biziminaren harlauzan  
iraunen luke  
nahiz eta desioaren mareetan  
ahazturaren olatuek mehatxatu  
iraunen luke  
pasioaren laburrean  
desenkantuaren luzean  
amodioa eta desamorioaren besoetan kulunkan  
iraunen luke  
hitzen magia soilik bilaka baiteke sentipen bat  
eternal  
gogoan hartu  
Denbora  
joan badoan trena da eternitatearen burdinbidean  
zikinduz kedarrez lurrazalean gaindi  
hedatzen den etengabeko utopia urdina  
gaur  
laino beltzaxka batek  
(beste bat gehiago espazio mugagabea)  
kondenatu du bere burua teilatu odolduetara  
ezin izan baitu tatuatu amodio galduaren iniziala  
zeruaren ezpainetan  
(ez da oroitzapenen zauri odoldua baino  
esnatu berria den minduaren ohantzean aharrasika)  
izan ere, iraganik ez, oroitzapenik ez  
atzokeDENDORAREN BESOETAN  
TXONTXONGILO GAITUK  
UTOPIAREN FALTSUTASUN EROSOAN GOXO  
NORANTZ GOAZEN AMESTUZ  
ZIURTASUN ONIRIKOAREN LILURAREN PEAN...

### Monotonia

Ba al dakik...?  
Sentipen eta oroitzapenak ehortzi ditik automatismoak.  
Burdinazko egun grisen segida etengabea  
bizi gaituk orain.  
Aitzina soilik zakiagu begiratzen,  
urruneko hodeiartza  
harrapatuko dugun ustetan,  
eta gorputzak ahuldu zaizkiguk  
bizitarik gabeko bizitza  
automatikoa biziz.

TXONTXONGILO ONIRIKOEN  
MUGIMENDU TRAKETSAK SOILIK  
OROITZEN DITIAGU  
ETA SOINARI LOTURIK DITUGUN SOKAK  
URRATZEN ARI DITUK...

### Ohikeria

Ba al dakik...?  
Jada ez diat negarrik egiten.  
Begiak xukatu zaizkidak  
eta ez duk anpulturik  
irristatzen nire masailtan behera.  
Sentipenik barik hilotza zirudiat,  
izerdirik ere ez zaidak jariatzen  
ekinaren ahaleginak  
akitu hurren geratu baitituk  
automatismoaren hoztasunean.

AMETSAK IDORTZEN ARI ZAIZKIGUK  
BAINA EZ GAITUK OHARTZEN  
INPOSATURIKO ONIRISMOAREN IZARETAN  
BILDURIK BAIKAUDE  
DATORRENARI IGURIKI...

### Faltsukeria

Ba al dakik...?  
Jada ez diat ametsik,  
orain itxaron soilik egiten diat.  
Ahaleginik ere ez diat xahutu behar,  
zer sentitu esaten baitidate.  
Zintzilik bizi nauk  
baina soka astun zaidak lepoan  
faltsutasunaren pisu  
amaigabeak ez baitit  
atsedenik ematen.

UTOPIAREN DISTIRA AMATATZEN ARI ZAIGUK  
AMETSEN AHULDURAREN  
ERRITMO GORRAREN PEAN  
AHITZEN ARI DEN  
ITXAROPENAREN ILDOTIK...

### Etsipena

Ba al dakik...?  
Unadurak harrapatu naik.  
Faltsutasunaren lilurak  
itsutu zizkidak begiak  
eta gorritz tindatu zaidak azala.  
Automatismoa ez duk, ez,  
bidaide ona denboraren joan-jinean.  
Beranduegi al da  
munduaren azken hatsa  
itotzear badago?

ERRENTERIAKO ONENARI SARIA: Oier Gillan Bermudez  
ERRENTERIA



## BASAMORTUKO ARNASA

Arnasa  
gabezia lizunen anabasa  
irudimenaren basmortu erkinetan  
amildu dut  
arnasa  
isiltasunaren jauzietan  
ilunabarrak erran dit  
zein zaila den  
ametsak hitzetan jartzea  
ortzemuga gertuaren  
maskera biluzia erantztea  
malkoak herdoildu artean  
bizi naiz  
bizi naiz bizitza bera  
ulertu baino lehen  
zein ote da  
harearen doinua  
behako liluratuen ezpalak  
irmoki epeltzean  
zein ote da  
harearen iraupena  
nork neurtu dezake basamortua  
ezpainak lehortzen dizkidanean  
urruti nahi nuke egon  
nire irudimena baino urrutiago  
jakinduriak lepotik helduko ez didan  
gordeleku ezinezkoetan  
basamortuko hareatza amaigabeetan  
uzkurtuko naiz

haizearen oihartzuna  
benetazko ahots bakarra denean  
ilunabarrak errango dit mila bider  
zein izugarria den  
izarren hautsa entzutea  
ilargia begietan lausoturik  
harearen itzalak hiltzorian  
bizi naiz  
bizi naiz jaiotza bera  
baino lehen  
paisaia gabezia baita  
nire sosegu bakarra  
gauean basamortuak  
izotza aitortu dit  
eta eguzki urdina  
itsasoak lain  
isiltasunaren mundu zabalean  
itsasoak anitzak baitira  
itsasoak eta behakoak  
bare zein sutsu  
hamaika itsaso  
hamaika bakardade  
hareazko azal galduen  
baretasun epelean  
bizi naiz  
galdetzeko bizi naiz  
basamortuan arnasa  
labaintzeko.